



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2008-07-20**

VIURTEA 1.491 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

JAI GIROA NONAHI

TOLOSALDEA Alegiako Karmen jaietan eta Asteasuko santamañetan azken txanpara helduko dira gaurkoan

GAUR Besteak beste, Asteasun Andazarrateko XXIV. Igoera izango da; Alegian, Iñaki Dieguez Quartet 4



Alegiako Karmen jaietan, besteak beste, sardinak jan zituzten plazan; Asteasuko Santamaña auzoan umeek euren sariekin jolasen ondoren. N. URBIZU / E. EZEIZA

Atekabeltz Gaztetxeak jai giroan ospatu du bere hirugarren urteurrena

LEITZA Egun osoan zehar ekitaldi ugari egin zituzten gazteek; herriko jendea izan zen nagusi ospakizunetan baina kanpotarrak ere animatu ziren s



Elektrotuna taldeak arratsalde partean heldu zen Leitza eta giro ederra piztu zuen. N. URBIZU

EGOren udako programan Tolosako bi perkusiojole,



Kultura eskura



» **Uzturretik**

Iraitz Lizarraga

Arte eszenikoetan aditu diren askok publikoaren ezjakintasunari botatzen diote antzerkia eta beste hainbat arte mota ez berritzearen errua: geure publikoa ez omen dago prest korronte eta joera berritzaileak onartzeko; gehiago bati zuzenduriko antzerkia egin nahi badugu betiko moldeetan aritu behar dugula. Puntu batetaraino ez zaie arrazoirik falta baina esan beharra dago publiko honi sekulan joera berritzaileak eskeintzen ez badizkiogu, ez dela inoiz ohitutako lengoia berrietara. Azken finean zirku-

lu bat da: kultura herriaren eskura badago, herriaren kultur hezkuntza handiagoa izango da, honek publikoaren interesa gehituko luke, dudarik gabe eta baita joera eta kode berriak irakurtzeko gaitasuna. Beraz, erru guztia publiko «ezjakinari» leporatzea ez zait bidezkoa iruditzen.

Gaur egun, geure herrialde honetan ezin esan dezakegu kultura guztion eskura dagoenik, are gutxiago arte eszenikoan arloan: norik ordaindu ditzazke asteburuko 30 Euro Victoria Eugenia edo eta Printzipalean antzerki edo dantza emanaldi baki ahal izateko? Badira eskeintza merkeagoak noski, baina ez dira 10 Eurotatik jeisten eta oso noizean behin topatzen ditugu. Ez dago guztion (haur, zahar, gazte, heldu...) eskura dagoen programaziorik. Europako eta estatuko hainbat hiriburutan gero eta emanaldi gehiago eskeintzen dira dohainik kalean baina badirudi moda hau geurera ez dela oraindik iritsi: badirudi uda

eta herrietako festak iristearen zai egon behar dugula ikuskizun bat kalean dohainik ikusi ahal izateko.

Hala ere, arrisku bat ikusten diot emanaldiak dohainik kalean eskeintzeari eta sarreraren prezioak murrizteari (orain teloiaren beste aldetik ari naiz). Emanaldi baten atzean jende asko dago lanean, soldata bat kobratzen duen jendea: Sarreraren prezioak murriztuz gero zihur antzerki eta dantza konpainiak izango direla lehenengo kaltetuak eta ondorioz, bertako langileak. Eta puntu honetatik agertzen dira ditxosozko subentzio eta dirulaguntzak, gaur egun Euskal Herriko konpainia gehienek bizirauteko behar beharrezkoak. Eta hona hemen arrisku nagusia: artearen instituzionalizazioa: gobernuak, berari komeni zaion arte mota bultzatuko du noski, kontrakoa pentsatzea inuxenteen kontua da. Mila trikimailu egin ditzazke eta egiten ditu konpainia batek, gobernuak emandako subentzioa lortu ondoren, berak

nahi duen emanaldi mota prestatzeko. Posible dabilen bat arte instituzionalizatu honetatik pixka bat urruntzea, baina funtsean, antzerkiak dituen muga eta oztipo guztiei beste bat gehitzen zaio: gobernuaren gustokoa ez bazara ez duzu subentziorik izango eta beraz, ezin izango duzu zeure lana aurrera eraman.

Prozesu honen hurrengo pausua da beldurgarriena nire usteetan: oraindik ez da bete bete eman baina bidean dago: marka eta empresa ezberdinek patroziaturiko artearen aroaren atarian gaude! Diru publikoa bizirauteko nahikoa ez denean, proiektu asko aurrera eraman ahal izateko empresa pribatuaren laguntza bila jo beharko dute eta jotzen dute hainbat kultur erakunde eta konpainiek. Gobernuak ipintzen duen muga handia bada, zer esanik ez marka komertzialek ipini ditzazketen mugeri buruz. Benetan beldurgarria ezta? Kirol arloan erabat normalizatu da egoera hau: marka ezberdinek torneoak patrozinatzen dituzte, futbol partiduak, turrak, pilota partiduak... Musika alornerogeroz eta maizago topatzen

ditugu zerbeza edo freskagarri marka ezberdinek bultzaturiko kontzertuak; laster bankuek, asaguru etxeek edo marka komertzial ezberdinek antzerki asteak eta festivalak antolatzen ikusiko ditugu, seguru!

Egoera honen aurrean, zein da irtenbidea? Iniziatiba pribatua? Gobernuaren eta marka ezberdinen laguntzei uko egin eta geuk nahi dugun arte mota egitea, inolako mugarik eta inolako zentsurik gabe; geure proiektuak esfortzu handiz aurrera ateratzea? Milaka marroietan sartu, arriskatu, kredituak eskatu, diru mordoa galdu, langileei saldata barregarriak eskeini, *por amor al arte* lan egin... Bai... oso polita... eta oso utopikoa... berriz ere mundu honetan mugitzen den jendea pasta bereziz egin dagoela eta haizeaz bakarrik bizi daitekeenaren mitoiari eutsi behar al diogu? Oraingoz ez dut formula majikorik topatu egoera honi aurre egiteko baina gogoeta sakona merezi duela uste dut, antzerkian ezetik kulturaren eta gizartearen hainbat arlotan aplikatu daitekeen egoera baita.

E Elkarrizketa

PATXI ZEBERIO Erremontista



HITZA

«Urte onak izan dira eta zaila izango litzateke emaitza hobek lortzea»

Elduain » Patxi Zeberio profesional mailan lehen txapela 1998. urtean irabazi zuen. Ondoren beste 17 irabazi ditu. Erremontean puntapuntan aurkitzen da egun.

ASIER IMAZ

Lehen, orain eta ziu gero ere Patxi Zeberio (Elduain, 1974) txapelak irabazten jarraituko duela. Aurrelariak San Ferminetan 18. txapela jantzi zuen uztailearen 12an.

Noiz hasi zinen erremontean?

Galarretako eskolan 18 urterekin hasi nintzen.

Zergatik aukeratu zenuen kirol hau?

Erremontean profesional mailan nire anai bat ibiltzen zen. Bestalde araba Mattin erremontistarekin ezkondu zen eta gehienbat berarekin joaten hasi ginen frontoira, ume ginele. Haren bidez sortutako afioza izan zen. 18 urtera arte palan biltzen nintzen eta egia esan hobeto manejatzen nuen pala. Baina etorkizun gutxi zegoela ikusi nuen eta erremontea aukeratu nuen.

Lehen txapela 1998. urtean irabazi zenuen Aizpururekin, binakoa. Ondoren ia urtero irabazi dituzu txapelak.

Bai, urte onak izan dira. Zaila izango litzateke emaitza hobek lortzea. Zortea ere izan nuen, izan ere, debutatu eta bi urte edo hirura estelarretan jokatzen hasi nintzen. Nahiko maila ona hartu nuen eta horri esker urte hauetan goi mailan ibili naiz. Txapelen inguruan berriz, beti ondo prestatu naiz eta txapelketetan beti izan dut ilusioa. Zortea ere lagundu dit eta finaletan ongi irten zaizkit gauzka.

Erremontea gertutik ezagutzen ez duenari nola aurkeztuko zenioke Zeberio II.aren jokoa?

Sendotasunean eta fisikoan oinarritzen da nire jokoa. Golpeen bidez beti puskatu izan ditut partidak, gehienbat indarra erabiliz jokatzen izan dut. Teknikoki ez naiz oso abila, ez naiz izan inoiz artista horietako bat nire ustez. Indarra eta fisikoaren poderioz min asko egin izandu dut.

Nola gogoratzen duzu 1998. urteko lehen txapel hurra?

Gogoratzen naiz Aizpururekin Iruñean jokatua nuela. Lehenengo

Mailako bigarren txapelketa nuen eta binakako finala zen. Koteto Ezkurra eta Imazen aurka jokatzen genuen eta Kotetoren aurka finala jokatzeak ilusio izugarria sortzen zidan. Oso lasai joan ginen, txapelketa ona egin genuelako eta final biribila atera zitzaigun. Mundu guztiak faborito beraiek ematen zituzten, gure alde ez zegoen peztarik ere, baina jokoa erekin dagoenean jokalari bat kontu handia izan behar dela ikusi zen. Azkenean tanto bakarrez irabazi genuen. Umetatik betiko ilusioa errealtate bilakatu zen eta gustura irten nintzen finaletik.

Azken txapela ere Kotetoren aurka irabazi duzu Huarten.

Beti izan dut aurkari indartsuena. Historiara pasa den pilotaria da. Ohitu ere egiten zara bere aurka jokatzeaz baina oraindik ilusio handia sortzen dit.

Ibarrako Uzturpe Udal Haur Eskolak 2006-2007 ikasturtean, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak abian jarri zuen Hazitegi deitutako ikerketa proiektuan parte hartu zuen; Uzturpe Udal Haur Eskolako datuak Euskal Herriko tokirik gorenean kokatu dira.

Hazitegi programa

» Iritzia

Ibarrako Udala

Orain dela bi edo hiru aste, Uzturpe haur Eskolako zuzendariaren eta psikologoaren eskutik Hazitegi programaren txostena jaso genuen, non Ibarrako Haur Eskolak sailkapen oso ona lortzen duen.

Balorzio handiagotan sartu gabe, esan nahiko genuke ikerlan honetan jasotako emaitza onak eraginda etor daitezkeela neska-

mutil horiek etxean maitatuak sentitzen direlako, eta hori Haur Eskolan antzematen da, lasaiaigo baitaude bertan. Langileek ematen dieten kalitatea eta maitasuna oso garrantzitsuak dira. Neska-mutilak maitatuak, baloratuak direnean eta familia giro egokia duenean, egonkortasun emozional altuarekin, bizitzan barna ibiltzea seguruago egiten da. Eta horri gaineratzen badiogu, Euskal Autonomia Erkidegoko hezitzaileen kalitatea oso handia dela, emaitzaker horietako txostenetan jasotzen direnak dira.

Udalak oso onuragarritzat jotzen du txosten hau, lehen hezkuntza ereduarekin hasten delarik eta gainerakoa hezitzaileena izanik, oso kalitate onekoa baita, Euskal Autonomia Erkidegoan gertatzen den moduan. Egoera on honek aurrerantzean ere jarraituko duelako konbentzimendua dugu, 0-2 gela Eusko Jaurlaritzaren menpekoa den Haurreskolak Partzuergoak kudeatzen duelarik.

Zorionak guraso eta hezitzaileei beren lan onarengatik, beren lan onaren emaitzak txosten honetan islatuta gelditu direlarik.

Hazitegi ikerketaren inguruko gogoeta eta emozioak

» Iritzia

Uzturpe ikastola

Oso pozik gaude ezerezetik eta 7 urtetako lanaren poderioz, Mondragon Unibertsitateak egindako Hazitegi ikerketan, Uzturpe Haur Eskola Euskal Autonomi Elkarteko tokirik gorenean kokatu dugulako. Gustura gaude ere emaitza honek gai garelako erakusten digulako.

Amorrua, samina eta etsipena sentitzen dugu Udalak, bitan banatu duelako proiektua: San Inazio eta Emeterio Arrese. Erabaki honekin, Hazitegi ikerketan, haurren garapenari begira, horren emaitza onak lortzeko funtsezko-

ak izan diren hainbat alderdi desegintu: 0-3 zikloaren ikuspegi bateratu eta hezitzaileen antolaketa, koordinazioa eta egonkortasuna.

Baina honen gainetik ondorengo auzi desegintuak: San Inazio eta Emeterio Arreseko hezitzaileen artean landutako oinarriak sendakoa dira eta proiektuan azpimarratzekoak izan diren emaitza altuei eustea eta hobetzea izan behar du beren ahalegina: eskolaren kalitatea, gelako giroa eta hezitzailearen esku hartzea, haurrei planteatutako jarduerak, esperimentazio-rako aukerak eta jolasak, familiarekin harreman motak, gurasoen presentzia eta partehartzea...

Horrelako zangotrabaren ondoren erroka berri bati heldu be-

har diogu: lehen hain ondo koordinatuta zegoena berriz ere koordinatu beharra. Zaila izango da bi titularitate ezberdineko zentroen interesak bat etortzea, batzutan elkarrekin joango gara bestetan ez, badakigu. Aliantza agiria adosten ari gara; guztiok jarri beharko dugu guretik zerbait. Garrantzitsuena, aldiz, jarrera da, herriko hezkuntza bultzatzearen aldekoa, laguntzearena.

Dolua ez da amaitu, baina pixkanaka horrenbesteko samina gainditu eta, oztupo gehiago jartzen ez badigute, berriz ere gai izango gara proiektu on bat aurrera ateratzeko, herrian txertatutakoa, ibaraldekoak kontutan izanik, haurrek herrian hazi, hezi eta bizitzea ahalbidetzen duena.

I Inkesta



Ibarra: Nola espero duzu bukatuko duela Olinpiar Jokoetan Xabi Fernandez marinela?

- Urrea lortuko du. %50
- Zilarra lortuko du. %21
- Brontzea lortuko du. %7
- Laugarren egingo du. %7

Ikaztegieta: Nola espero duzu bukatuko duela Olinpiar Jokoetan Leire Olaberria txirrindulariak?

- Urrea lortuko du. %10
- Zilarra lortuko du. %20
- Brontzea lortuko du. %20
- Laugarren egingo du. %30

E Eztabaida



Krisi egoeran gaudela diote. Zuk zertan nabaritzen duzu hori? Nola egin ahal zaio aurre eguneroko bizitzan?

- «Ba pixkat estutu behar poltsikoa. Nik uste komunikabideek ere bonbo gehiegi ematen diotela asuntuari, alarma handiagoa piztuz. Historiari begiratu zu beti egon dira gora behar. Gutxiago atera behar eta oraingoz kapritxoak alde batera utzi beharko ditugu... Egia da janaria eta batez ere depositua betetzea asko garestitu dala».
- **Guraso bat.** «Ziurrenik aurretik idatzi duenak ez du seme-alabarrik izango. Nere uestez guraso garenok gehiago notatuko dugu, umeen «kapritxo horiek» ezin direlako hilaibetako gastuetatik kendu».
- **Hipotekadun bat.** «Janarian eta gasolinan bakarrik? Ziurrenik ez da gurasoa eta ziurrenik ez dauka hipoteka bat hilaibetero-hilaibetero. Niri behintzat ederki igo zait, erbisioa egin eta gero. Diferentzia horrek marka dezake hilaibete bukaerara ondo iristea edo eza».

Barazki zerrenda polita eta betea izan da azokan eguraldia dela eta

Azoka » Ibarrako piparra, tomatea eta kalabazina asko ikusi zen; udako barazki gehienak aurkeztuta daude.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna lasaia suertatu zen erosleen aldetik, baina oso oparua eta animosoa eskaintzaren aldetik. Eguraldiaren aldakortasuna laguntzen ari da udarako barazkiak ondo hazitzen, eta zerrenda egun hauetan oso polita eta betea izaten ari da.

Atzo baina, Ibarrako piparra, tomatea edo eta kalabazina asko ikusi genuen, eta hauekin udarako barazki gehienak dagoeneko aurkeztuta daude.

Onddo eta perretxiko zerrenda bertako espezieekin bete zen atzo, berriro ere eguraldi aldakortasunaz lagunduta. 10 kilo ondo eta 30 kilo ziza hori izan ziren salgai atzo, eta dirudinez, datozen egunetan ere aukeran izango dira.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA

PLAZA	Merka.	Gares.
Alegria	1,00	1,20
Errormeroa	4,00	6,00
Xarbota	4,00	6,00
Salbia	1,00	1,20

BERTAKO PRODUKTUAK

Onddoa	25,00	30,00
Marrubia	4,00	6,00
Ilarra	8,00	10,00
Kalabaza	1,50	3,00

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Kalabaza	1,60	3,04
Dilistak	1,90	2,00
Azenarioa	2,00	2,50
Baratxuria	1,60	6,00

H Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

JUAN CRUZ AIZPURUALANDA

Mendiko lagunartek erakutsi ziguan kaleko pozak gozatu eta zailtasunak eramaten. Joan haiz, baina gurekin hago



ZARAUTZ
2008ko uztailearen 20a

Herrigoibehe koadrila

FUNERARIA VASCONGADA EHOZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasaja Tolosa (Bellatokia)



Presoen «egoera latza» salatuz

VILLABONA • Tolosaldeko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deituta giza katea egin zuten atzo 50 lagun inguruk Villabonako kale nagusian. Bertan, presoen egoera salatu nahi izan zuten *Errepresiorik eta torturatik* ez aldarrikatuz. Besteak beste, minbiziarekin larri gaisorik dagoen Mikel Ibañez izan zuten gogoan. Baita, «bizi guztirako espetxealdia aplikatu dioten» Pello Odriozola. Azkenik, Julen Zelarain billabonatarren egoera salatu zuten ekitaldian. **ESTIEZEIZA**



Saharar festan ehunka gaztetxo

TOLOSALDEA • Dagoeneko hilabete inguru igaro da Saharako haurrak errefuxiatu kanpamentuetatik gurera iritsi zirela. Tolosaldea Sahararekin elkarrekin ekitaldi ugari antolatzen ditu bi hilabetez saharar umeek goza dezaten, bertako ohiturak ezagutu ditzaten eta bertako umeekin harremana sor dezaten. Atzokoan ere festa ederra antolatu zuten Adunan. Bertan Gipuzkoa osoko ehunka ume elkartu ziren; besteak beste, putzikekin jolasak egin zituzten eta guztiek ere ederki igaro zuten. **EZEIZA**

12. GARAGARDO AZOKA
Uztailaren 17tik 20ra



Ordutegia: 18:00etatik 1:00etara

VILLABONA



Alegiako Karmen jaietan, edaria ez zen faltatu, sagardo dastaketa egin baitzuten plazan. **N. URBIZU**

Azken egunak gogoz aprobetxatu nahi dituzte

Jaiak • Alegian eta Asteasun azken txanpara heldu dira karmenak eta santamañak; egitarau oparoa dute gaurkorako.

ESTIEZEIZA

Azken txanpara iritsi dira jada Alegiako karmenak eta Asteasuko santamañak. Hala ere, ongi aprobetxatu dituzte festak, bateko nahiz besteko herritarrek. Horren adibide da atzoko eguna. Alegian, goizetik hasi ziren sardina eta txorizo erreka jaten. Eta nola ez, hau bultzatzeko zerbeit behar zenez, sagardoa dastatzeko aukera izan zuten alegiarrek. Jende ugari hurbildu zen plazara, janariaren usaira. Bestalde, urrutitik entzun zitezkeen Asier Unsain eta Irma Karre-rak jotako trikitixa doinuak eta horrek ere festarako gogoia piztu zuten askori. Batzuk eszenatokira igo eta dantzan hasteko ausardia ere izan zuten.

**Iñaki Dieguez Quartet-
en kontzertua, gaur Alegian**

Crossing time izeneko emanaldia eskainiko du gaur eguerdian irundar honek. 12:30ean hasiko da kon-



Mahaiairen inguruan eseri ziren musean aritzeko. **EZEIZA**

tzertua eta herriko plazan izango da. 1973an, eta 9 urterekin hasi zen akordeoia ikasten A.M. Belio irakaslearekin.

Egun, akordeoia da askotariko aukera estilistiko eskaintzen di-tuen musika-tresna. Proiektu berri honekin nahi duena da «gure herri-rian orain arte bete gabeko hutsu-nea betetzea, hain zuzen ere, Jazz akordeoia-rena».

Jazz musika simple eta entzune-rrazatik abiatuta, kontzertu honek hainbat estiloren laburpena izan nahi du. Bestalde bihar 19:30ean, Argentinako Ballet Nazinalaren emanaldia izango da plazan.

Gaur, txirindulariak

Asteasun, arratsaldera arte indar-rrak hartzen egon ziren, eta 16:00etan ekin zieten jaiari. Haste-ko, mus txapelketa jokatu zen, eta hauek kartetan ari ziren bitartean, haurren jolasak hasi ziren. Bertan ederki pasa zuten gaztetxoek, batera eta bestera korrika.

Ekitaldiekin jarraituz, VIII. Nazioarteko Toka Txapelketa jokatu zen. Gaurkoan berriz, txirindulariek, Andazarrateko XXIV. Igo-erarekin hasiko dute eguna. Gero, meza nagusia izango da eta ondoren herri kirolak. Bertan ariko dira Otaño eta Lasa aizkolariak. Baita Telleria eta Lertxundi harri jaso-tzaileak ere. Ikuskizuna borobil-tzeko, Iruzu eta Telleriaren bertso saioa izango da eta trikitilariak.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Mer-kea. Obra egin beharra dago. Intere-satuek deitu ondorengo telefo-no zenbakietara: 657 23 0011 edo 634 91 94 82ra.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HIRU URTEZ INDARTZEN

Leitza » Gazte talde bat bizikleta martxan ibili zen, Atekbeltz Gaztetxearen 3. urteurrena ospatzeko. Jokuak ere izan ziren.

NEREA URBIZU

Atekbeltz gaztetxeak urte urte autogestioaz sortzen-erakitzen leloa aukeratu du bere hirugarren urtemugan. Gaztetxeak merezi bezala, bertakoek dotoretu egin zuten asteazkenean eraikina, kolore biziekin apainduz. Ez zen gutxiagorako, hiru urte egin baititu Gaztetxeak. Honen baitan egitarau bat prestatu zuten gazteek, eta 10:00etarako han ziren lehen goiztiarrak, Gaztetxean, bizikleta eta guzti, hauekin martxa herrian zehar egiteko. 25 bizikleta inguru atera ziren eta herriaren baitan ibiliziren.

AHTri buruzko hitzaldi bat ere izan zuten, hasiera batean goizean izan behar zuen baina beranduago izan zen azkenean. Bitartean, txalaparta jotzen, musika entzuten eta dantzatzen jardun ziren leitzarrrak bazkariaren ordura arte.



Atekbeltz kolore eta irudi zehatzekin margotzez bukatu dute. N. URBIZU



Bizikleta martxa Gaztetxetik hasi eta herri gunerantz joan ziren aurrena. N.U.

Bazkari osteko tertulia ederki luzatu ostean, 18:00ak aldera plaza jokuak egin zituzten, eta 18:30erako Elektrotuna azaldu zen Karrapen, jolasak egiten ari ziren lekuan. Hortaz, jolasteari utzi, eta han aritu ziren gero dantzan Elektrotunaren laguntzaz.

Gauari lekukoa Vendetta ska talde berriak pasa zion. Leitzarrrak ez zirenak ere azaldu ziren bertan, kontzertuaz eta dantzaz gozatzera. Eguraldia lagun, egun biribila izan zuten, beraz, Leitzako gazteek, Gaztetxearen III. urteurrena ospatzeko.



Uraren festan, giro ezin hobea

LEITZA » Denok Bat guraso elkarteak antolatuta, atzo haur askok ederki freskatu ahal izan zuten gorputza. Leitzako bertakoak eta inguruko herrietako jende ugari bildu zen igerilekuan. Uraren gainean hainbat puzgarri zeuden haiekin jolasteko. Egun aproposa izan zen hauetan ibiltzeko. N.U.



Kilometroak jaialdiko egunean lagundu nahi?

TOLOSA » Aurtengo Kilometroak jaialdia Iruran izango dela ezaguna da. Jaialdia erraldoia da eta jende asko behar da lan egiteko. Horregatik, atzo Tolosako Trianguloan laguntzen aritu nahi duen horrentzat txartelak banatzen aritu ziren. Txosnetan, garbitasunean, segurtasunean, muntaian, trafikoan, zein edozein arlotan aritzeko aukera ematen da txartelan. ESTI EZEIZA

txokoa **h**


**2 pertsonentzako
piragua eskolan ikastaroa**

zozketan, deitu eta eskuratu

Txaraman abuztuaren 18-23ko astean goizez



KAXKARDI
KIROL ERREKREATIBO ELKARTEA
kaxkardi@hotmail.com



Pasa den Aste Santuko Argazki Lehiaketan, zazpigarrenean, hauxe izan zen argazki irabazlea. IBON AZPILIKUETA

Uda honetan egindako argazkiak VIII. HITZA Argazki Lehiaketara bidaltzeko aukera izango da; irabazleak Amorotoko (Bizkaia) Altuena landetxean, bi pertsonentzako bi gauerako egonaldia irabaziko du eta bigarrenentzat afari eder bat izango da Beti-Alai jatetxean; har ezazu parte!

Zortzigarrenez, edertasunari so

ERREDAKZIOA

Nekatuta nago, oporrak behar ditut». Nork ez du esaldi hau entzunguruko ezagunen baten ahotan? Zuk zeuk ere ziurrenik horixe esango zenuen... Eta azkenean iritsi da. Luze jotzen dute oporraldiaren bezperako azken egunek, baina egun gutxi barru gehienek izango dugu aisirako desiratutako tarte hori. Beste batzuk, egunotan ariko dira euren jai eguez disfrutatzen, edota izan dituzte dagoeneko...

Guztientzat jarri du martxan HITZAK bere Argazki Lehiaketa. Zortzigarren aldia izango da eta dagoeneko heldutasunera ere iritsi dela esan daiteke. Urtez urte jaso diren argazkien kalitatea hobetuz doa, hamaika sari banatu dira dagoeneko irakurleen artean eta guztiak irudi ederrez gozatzeko aukera ere izan da. Azken batean, horixe baita Argazki Lehiaketa, irudi ederrez gozatzeko aitzakia.



Bigarren argazki bozkatuena, berriz, hau izan zen. AITOR GONZALEZ

Etxean geratuta nahiz etxetik kanpo ateratako eta erakusgarri iruditzen zaizuen edozein argazki izan daiteke irabazle: naturak emandako bitxikeriaren bat, pertsonaren bat, eraikuntzaren bat... Hamaika aukera daude argazki kamera hartu eta zuen oporraldian ezagutu dituzuenak erakuskeko.

Irabazlearentzat, asteburua landetxe batean

Sari deigarriak jarriko ditu aukeran TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK. Harpidedunek erabakiko duten argazki irabazlearen egilearentzat Amorotoko (Bizkaia) Altuena landetxean, bi pertsonentzako bi gauerako egonaldia. Bigarrenak sabela asetzeko aukera paregabea izango du, Tolosako Beti-Alai jatetxean bi lagunentzako bazkari edo afaria izango da eta hirugarrenentzat Ibarroko Azoka-k eskainitako saski berezia.

Partaidetza ere sarituko du Hi-

tzak, eta argazkia bidaltzen duten guztien artean eta euren bozka ematen duten guztien artean HITZAREN materiala zozketatuko da.

Parte hartzeko modua

Argazkiak bidaltzeko posta elektronikoz (tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info), posta arrunta erabiliz (Araba Etorbidea 5, atzea. Tolosa, 20.400 helbidera bidali eta zehaztu Argazki Lehiaketarako dela) edota HITZAREN egoitzetara

Urtez urte Argazki Lehiaketan parte hartzen duten argazkilarien maila altuagoa da

Lehiaketara bidaltzen diren argazkiak uda honetan ateratakoak beharko dute izan

(Lehen aipatutakoa edo Leitzakoa) ekarriz egin ahalko dute parte-hartzaileek.

Jasotako argazkiak egunkarian argitaratuz joango dira irailetik aurrera. Hauetatik batzuk publikatzeko denborarik ez balu emango ere, horrek ez du esan nahi lehiaketan sartzen ez direnik. Guztiak interneten izango dira ikusgai. Jasotako guztiak izango baitute irabazteko aukera.

Lehiaketaren epeak

Irailetik aurrera has zaitzekete argazkiak bidaltzen. Irailaren 2tik aurrera jasotzen diren argazkiak argitaratzeari ekingo dio HITZAK. Hala, irailaren 18ra arte jasotzen diren argazkiak, hau barne, onartuko dira. Asteburu horretan bertan, irailaren 21ean, 8 argazki aukeratuak argitaratuko dira. Hortik aurrera, lana harpidedunena izango da, haien esku egongo baita guztietan irudi ederrena zein den aukeratzea.

Hainbat baldintza

HITZAREN irakurle guztiak dute aukera lehiaketan parte hartzeko, ez dute zertan harpidedun izan. Haatik, bozka eman nahi dutenek harpidedun izan beharko dute eta harpidedun bakoitzeko bozka bakarra onartuko da. Hori dela-eta harpidedun kodea eskatu da bozkarekin batera.

» VIII. HITZA ARGAZKI LEHIAKETA

Epeak

- Argazkiak irailaren 1etik aurrera bidali daitezke, eta irailaren 18a izango da azken eguna (azken hau barne).
- Irailaren 21ean Hitzaren epaimahaiak aukeratutako zortzi argazki finalistak argitaratuko dira.
- Irailaren 28an irakurleek aukeratutako argazki irabazlea argitaratuko da. Harpidedunek bakarrik bozka dezakete. Bozkatzeko epea, berriz, irailaren 25ean amaituko da.

- Bozkatzeko, telefonoz (943 655695) edo mailez (tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info) egin daiteke. Bozkatzerako unean harpidedun kodea zehaztu beharko da.

Sariak

- Irabazleak Amorotoko (Bizkaia) Altuena landetxean, bi pertsonentzako bi gauerako egonaldia irabaziko du.
- Bigarren sailkatuarentzat Tolosako Beti Alai jatetxean, bi pertsonentzako bazkari edo afaria.

- Hirugarrenari Ibarroko Azoka-k eskainitako saski berezia egokitu-ko zaio.

- Parte-hartzaile guztien artean HITZAKO produktuak zozketatuko ditugu. Baita botoa ematen dutenen artean ere.

Baldintzak

- Aurkeztutako argazkiek udako oporraldikoak behar dute izan.
- Argazkiak paperean, diapositiban eta formatu digitaletan onartzen ditugu.

- Bidaltzeko aukerak: posta elektronikoz (tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info) edota posta arruntez egin daiteke (Araba etorbidea 5, behe. 20.400 Tolosa edota Herriko plaza 1, Leitza).
- Argazki digitalek, gutxienez, ezaugarri hauek izan behar dituzte: 20 zentimetrotako zabaleria eta 300eko bereizmena.
- Jari behar diren datuak: egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa. Horrez gain, argazkia non eta noiz egin den, eta zer ikusten

- den adierazi beharko da.
- Jasotako argazkiak artxiboan gordeko ditugu, eta Hitzak behar dituzte argitaratu ahal izango ditu.
- Jasotzen diren argazki guztiak sartuko dira lehiaketan, baina Hitzak jasotako lehen 50 argazkiak argitaratuko ditu.
- Argazki guztiak webgunean izango dituzue ikusgai.
- Parte-hartzaile bakoitzak argazki bakarra bidali ahal izango du.

Euskal Herriko Gazte Orkestra (EGO) udako programa burutzen ari da egunotan eta tartean beste bi perkusiojole tolosar ari dira: Iraide Ansorena eta Igor Arostegi; ez dira lehenak eta ez al dira azkenak izango; Eibarren ari dira entseguetan eta gaur Bakion eskainiko dute kontzertua, bihar Donostian, hurrengo egunetan Bilbon eta Gasteizen eta 24ean Zarautzen.

«Perkusioiko tresnen barruan, kaxa da gehien gustatzen zaidan soinu tresna»

IRAIDE ANSORENA ▶ Perkusiojolea EGOan

Musika ▶ Bosgarren aldiz ariko da EGOan perkusioa jotzen; Erdi Maila bukatu berri du Errenteriako Musika Eskolan.

JOXEMI SAIZAR

Iraide Ansorena Gonzalezek 21 urte ditu eta Tolosako Eduardo Mokoroa udal musika eskolan hasi zen perkusioa ikasten hamar urterekin. Aurten Erdi Maila bukatu du Errenterian. EGOan 16-26 urteko musikariak daude, gehienak 21 urtetik beherakoak eta urtero %30a berritzen dute. Ansorenak bosgarren urtea beteko du EGOan neguko eta udako programa egiten. Eibarren harrapatu du HITZak buru belarri Stravinskiren *Suzko txoria* eta Ravelen *Bolero* doinu ezaguna entseatzeko. Juan Jose Oconen zuzendaritzapean. Obra hau gainera Ballet Biarritz Juniorrekin batera eskainiko dute eszenatokietan.

Zer moduzko erreperitorioa duzue orainoan?

Erreperitorio ona, Ravelen *Bolero*an paper garrantzitsua daukat,



HITZA

kaxa jo behar baitaukat. Paper zaila da. Hamasei minutu irauten du piezak eta oso errepikorra da. Ez nuen inoiz jo. Stravinskiren obran xilofonia, triangulua eta perkusioiko beste tresna batzuk joko ditut.

Nola egiten dute zuen artean instrumentu aukeraketa?

Nik sarrera froga duela lau urte gauditu nuen, baina orkestra profesionalean perkusioiko postuak asignatuta daude, tinbaleroa adibidez Horregatik Aste Santuan instrumentu proba egin zuten hautatuen artean eta kaxarako bi ginen eta ni aukeratu ninduten.

Perkusio barruan, zein da gehien gustatzen zaizun tresna?

Kaxa. Eta baita marinba ere.

Eta gutxienean?

Zaila da hori esatea. Agian bateria, ez dugulako asko ikasi. Txikitan zerbaite ikasten duzu, baina perkusioan instrumentu asko dira eta kaxa, xilofonoa eta besteekin hasten gara eta denborarik ez zaigu geratzen bateria ikasteko.

Zer ari zara ikasten orain?

Erdi Maila bukatu berri dut Errenterian Jesus Mari Garmendia irakasle tolosarrekin eta datorren urtean oraindik ez dakit Goi Maila

non ikasiko dudun. Donostiako Musikenean hiru bakarrik sartu dira eta ni laugarrena gelditu nintzen. Irailean beste nonbaiten probatuko dut sartzen edo beste urtebete pasatuko du Musikenerako sarrera prestazten.

Eta zein taldetan jotzen duzu?

Euskadiko Orkestra kolaboratzaile gisa ari naiz, maiatzean sartu nintzen. Eguberrietan aritu nintzen eta ekainean Gijonen.

Esperientzia polita da EGOrena; hasieran txikienean nintzen eta orain berriz, etxean bezala nago

Zer moduzko esperientzia da EGOrena?

Eperientzia polita da, programa beti aldatzen da eta. Hasieran taldean txikienean nintzen eta orain berriz, etxean bezala sentitzen naiz hemen.

Zer moduzko irakaslea izan duzue?

Javi Alonso ez nuen ezagutzen, izenez bakarrik, Bilboko Kontserbatorioiko irakaslea eta BOSeko bakarlaria delako. Oso gustura aritu naiz berarekin. Oso ona da, jatorria, hurbila. Gainera perkusio taldean kamarako beste obra batzuk entseatzeko tartea izan dugu.

Noiz arte jarraituko duzu?

Ez dakit noiz, azken urte izango dela suposatzen dut. Eguberrietako programan parte hartuko dut eta seguraski hor bukatuko da.

«Asko ikasi behar da eta gogoia ere behar da EGOra iristeko, batzuk bidean utzi egiten dute»

IGOR AROSTEGI ▶ Perkusiojolea EGOan

Musika ▶ EGOan sartzea lortu duen lehen aldia da; Tolosako Musika Bandan eta Bonberenea txaranga aritzen da baita ere.

J. SAIZAR

Igor Arostegi Acostak 18 urte ditu. EGOan 26 gipuzkoar, 21 bizkaitar, 12 arabar, 11 nafar eta bestemusikariak ingurukoak dira (Errioxa, Kantabria, Aragoi...). Euskal selekzioa dela esan daiteke. Oso zaila da hor sartzea, baina Arostegik aurtentz lortu du. Tolosako Musika Eskola irakaslea eta materiala gorai-patzen ditu.

Zer moduzko esperientzia da?

Esperientzia ona, oso gustura nago.

Zer egiten duzue Eibarren?

Javi Alonso irakaslearekin aritu gara lehen astean, BOSeko perkusiojole bakarlaria. Harreman ona izan dugu. Bigarren astean orkestra osoa entseatu dugu elkarrekin. Egun batean Biarritzeko Ballet Junior etorri zengurekin aritzera Ravelen *Bolero*a. Bederatzi dantzari dira taula gainean ariko direnak.

Lan asko, beraz.

Lehen astea gehiago aprobetxatu dugu, irakasleak aholkuak ematen zizkigun eta denbora izan genuen lanerako, kamarako obrak entseatu ditugu... Goiz eta arratsalde aritzen gara, 10etatik 13:30era eta 16:30etik 20:30era.

Zein da zure papera eta nolako obrak dituzue?

Stravinskiren obra *kañeroa* da, mugimendu asko ditu eta metal guztia jotzen eta perkusio guztia batera ari gara une batean. *Bolero*an bonboa eta platoa jotzen dut. Orkesta ariketa bezala konposatu omen zuten Ravelek.

Nola sartu zinen EGOan?



HITZA

Aste Santuan egin nituen probak. 16 lagun aurkeztu ginen eta bi hautatu gintuzten.

Lehen aldiz aurkeztzen zinen?

Ez, hirugarren aldia zen.

Norekin ari zara ikasten?

Tolosako Musika Eskolan Jesus

Mari Garmendia irakaslearekin hasi nintzen eta orain Errenterian Erdi Maila ari naiz egiten irakasle berarekin. Beste urte bat falta zait Erdi Maila bukatzeko. Oso gustura ari naiz.

Zer gertatzen da Tolosan hain-

beste perkusiojole on ateratzeko?

Alde batetik oso irakasle ona dugu, Jesus Mari Garmendia. Eta besteetik, material ona dago, beste musika eskoletan baino gehiago eta hobea. Adibidez, une honetan 10 tinbal daude, musika eskola eta bandaren artean, gure esku.

Zer egiten behar honaino iristeko?

Asko ikasi behar da eta gogoia ere behar da. Irakasleak bideak markatzen digu eta guk jarraitu egin

Lagunarteko txaranga ondo dago, baina neurrian dago kontua, pasa gabe aritu behar da

dugu, baina bide horretan batzuk utzi egiten dute. Honetan jarraitzeko asmoa daukat.

Eta posible al da orkestran eta txaranga batera aritzea?

Biak oso desberdinak dira. Bonberenea txaranga lagun artean par batzuk egiteko eta ondo pasatzeko da. Hau serioagoa da, profesionala eta askoz ere gehiago ikasten da. Lagunarteko txaranga ondo dago, baina neurrian dago kontua, pasa gabe aritu behar da.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Alkiza.** Eskualdeko jubilatuen festa: 11:00etan meza; ondoren toka eta beste jokuak eta 14:00etan bazkaria.
■ **Baliarrain.** Mendarora joango dira 26ean autobusean. 616 634 909 edo 649 019 440 telefonoe-tara deitu behar da horretarako. Txapelketetan ere izena eman daiteke oraindik parte hartzeko, telefono berdinetara deituz. 16:30ean plazan.
■ **Villabona.** Behar Zana kirol elkartek XXX. Pitxoi Tiraketa antolatuko du Izarrezelaian, Arratzainen, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

Irteerak

■ **Berastegi.** Uztailaren 24erako Aragoira irteera antolatu du Gaztainondok, Liedena, Sos del Rey Catolico eta Zangotza bisitatzeko. Izen-ematea, Gaztainondon bertan egin behar da ahalik eta lehen.

» GUARDIAKO FARMAZIAK GAUR

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.
BIHAR
■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Musika bandaren doinuekin gozatzuz

TOLOSA • Gau giro ederra egin zuen herenegun gualdean. Tolosako Gau Giro saio bat entzuteko aproposa du-darik gabe. Giro epela aprobetxatzuz, lagun ugari bildu ziren Lopez Mendizabal pasealekuan Tolosako Musika Bandaren musikaz gozatzeko. Argazkian ageri den bezala, eserlekuetatik gozatu ahal izan zuen jendeak bandaren doinuez. Gau Giroko hurrengo saioa heldu den hilaren 24ean izango da, Oliben's Band folk pop taldea ari delarik. Abuztuaren lehen Aitor Furundarena eta Garikoitz Mendizabal akordeoi eta txistu bikoteren txanda izango da, Plaza Berrian. [kusk](http://kusk.com)

A Agurrak



Zorionak!

Manuel eta Mari Karmen. Jada 50 urte. Ondo pasa familia osoaren partetik.



TOLOSA MOTOR, S.A.

San Esteban Auzoa, 14-A

20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Tel: 943-680337 Fax: 943-682938

e-mail: tolosa@tolosa.redpeugeot.com

Bipper Berria



PEUGEOT